

# Estrellita Donostian lehorreratu zen atzo

*Traineruan heldu zen taldeko izar nagusia La Cubanaren ikuskaria aurkeztera*

**D**onostiako Victoria Eugenia antzokian ikusi ahal izango da hilabetez La Cubana taldearen *Cegada de amor*. Emanaldiaren aurkezpena egiteko *show* bikaina eratu zuten La Cubanakoek atzo Donostian. Traineruan heldu zen izar nagusia, Estrellita Verdiales, eta alfonbra gorria ezarri zioten Bulebar osoan zehar, Victoria Eugenia antzokiraino.



Ramon Etxezarreta Donostiako Kultura zinegotziak hartu zituen La Cubanako artistak. ANDER GILLENEA

Juan Luis Zabala / Donostia

ARRAUN LAGUNAK taldearen Mari Galant traineruan heldu zen atzo Donostiara Estrellita Verdiales, La Cubana antzerki taldearen *Cegada de amor* antzezlaneko izar nagusia. *Fan* sutsuz inguratutik egin zuen lehorreratzea, eta *fan*-ak atzetik izan zituen Bulebar osoa —paperezko alfonbra gorri dotore baten gainean— zeharkatu eta Victoria Eugenia antzokira heldu bitartean. Izan ere, *show* baten bidez aurkeztu zuten La Cubanakoek *Cegada de amor* obra arrakastatsua.

Kontu serioirik apenas esan zen atzo eguerdiko aurkezpenean. Jordi Milan zuzendariak hasieran esan zituen hitzak izan ziren seriotasun apur bat izan zuten bakarrak. Antzezlanak 1994an Bartzelonako Tivoli antzokian estreinatu zela ekarri zuen gogora Jordi Milanek, eta «zinemaren eta antzerkiaren magia bateratzen dituen ikuska-

ria» milatik gora bider eman duela jada La Cubanak. Ez zuen gezurrik esan Milanek: 1994ko urtarrilaren 28tik —estreinaldiaren egunetik— gaur arte 1.067 aldiz eman dute La Cubanakoek *Cegada de amor*, eta 800.000tik gora ikusle bildu, 823 ikusle emanaldiko beren kalkuluen arabera. Donostiara heldu aurretik Almerian izan dira La Cubanakoak beren emanaldiarekin.

Estrellita Verdiales ezezik, han ziren ikuskariko gainerako izarrak ere: Antonio Valdivieso, Trinidad Gordillo, Jaime Blanchard, Rosita Alfaro, Jorgito Luis Marçal Casademunt...

Baina Estrellitaren hitzak izan ziren entzunetak: «Egun on», esan zuen hasteko, eta gero gaztelaniaz jarraitu zuen: «Oso pozik nago hemen, Easo Ederrean. Transatlantiko liluragarri batean etorri naiz Almeriatik honaino, neu bakar-bakarrik, eta oso ederra izan da Easo Ederrera hurbiltzea».

«Munduko arraunlari goapo, indartsu eta liluragarrienak» • Bidaia, Portugal, Galizia eta Asturiasko itsasertzetik barrena, oso ederra zela azaldu zuen. «Baina ederrena hona heldu eta Igelto mendia eta Kontxako badia ikustea izan da», jarraitu zuen. «Nire transatlantiko oso handia zenez, ezin izan da sartu Kontxako badian, baina oso zorte handia izan dut, mundu osoko arraunlaririk goapo, indartsu eta liluragarrienak etorri dira nire bila. Trainerura igo orduko guztiz donostiarra sentitu naiz».

Donostian lehen ere izana zela gogoratu zuen Estrellitak: «Dakizuen bezala, nik egin ditudan 80 filmetatik hiru hemen eginak dira: *La pequeña cantinera*, *Estrellita*, *neska polita* y *La niña del chacolí*. Bulebarretik paseatu eta Donostiako nire *fan*-ak agurtzeko gogo bizia dut, itsas brisa hau hartuz, bakarra munduan, dena sendatzeko gai, nik ezer sendatu beharrik ez badut ere, neskato

bat naizenez». «Donostiarrok liluragarriak zarete», esan zuen, amaitzeko, Estrellitak. «Donostia liluragarria da. Mila esker. Mundu guztia da liluragarria».

Gaur hasi eta uztailaren 27ra arte egunero ariko da La Cubana Victoria Eugenia antzokian. Larunbatetan 19:30etan eta 23:00etan izango dira emanaldiak; gainerako egunetan, 20:00etan. X

**Azkenean Bakarrik bikoteak gaur egingo du aurkezpen kontzertua Azkoitian**

■ *Mocedades taldean arituak dira taldeko bi kideak, Iñigo Zubizarreta eta Jose Garcia*

Erredakzioa / Donostia

AZKOITIKO Baztartxo antzokian aurkeztuko ditu gaur, 22:00etan, Iñigo Zubizarretak eta Jose Garciak osatutako Azkenean Bakarrik taldeak bere lehen diskoko kantak. ETBko kamerak Azkoitian izango dira gaur eta ETB1ek hurrengo astean emitituko du Azkenean Bakarrik talde berriaren estreinako emanaldia.

Mocedades taldeko kideak izan dira Iñigo Zubizarreta eta Jose Garcia orain dela gutxi arte. Izaskun Uranga, Roberto Uranga, Javi Garai eta Ines Rangil-ekin batera. Duela lau urte sartu zen Mocedades taldean Iñigo Zubizarreta, eta duela bi Jose Garcia.

70eko hamarkadan irratian gehien entzuten ziren kantak bildu ditu Azkenean Bakarrik bikoteak taldearen izen bera duen diskoan: *Iguriako boluan*, *Markesaren alaba*, *Benito Lertxundiren Zenbat gera*, *Haur eder baten bila* gabon kanta, *Iparragirreraren Gazte-gaztetatikan*, *Trapu zaharrak* eta *Gora Rioja*... Gaurkotu egin dituzte doinuok Zubizarretak eta Garciak.

Jaialdiaren aurkezpena egingo dute Jose Mari Iriondok, Luis Iriondok, Pello Zabalak eta Joan Larrañaga Urko-k. X

## Disziplina anitzeko lana Consonni fabrikan

■ *Dantza, musika eta bideoa batuko ditu gaur Bilbon 'A menudo, el bosque'-k*

Erredakzioa / Bilbo

DANTZA, musika eta bideoa lotzen dituen ikuskaria estreinatuko du bihar Bilboko Consonni fabrikan Compañía 391 taldeak: *A menudo, en el bosque*. Bilboko Institutu Frantziarraren eta La Fundicion aretoaren laguntza izan dute Compañía 391ko kideek obra hori prestatzeko.

Egitasmo handiago baten barruan kokatzen du Loic Touze zuzendariak *A menudo, en el*

*bosque* ikuskaria. Egitasmo horren baitan Bilbon egindakoa lehen etapa baino ez da izango. Hamar lagun izan dira partaide obraren prestaketan: musikari bat, mezzosoprano bat, argiteria arduradun bat, bideo artista bat eta Touze bera eta bost dantzari.

Consonni fabrika zaharra Zorrozaurren dago, Bilboko alderdirik zaharkitu eta zarpailduetako batean, eta joera artistiko garaikide esperimentalekin

lotutako ekimen artistikoetarako gune da egun.

*A menudo, en el bosque* «esplorazio lan bat» da, Touzeren ustez, eta artistaren zein ikuslearen esperientziak nahasten ditu. Ikusleak 60na laguneko taldeetan banatuko dira, eta gidari bat izango dute Consonni fabrikan barrena *A menudo, el bosque* zer den hobeto jabetzeko. Hala nahi duenak txalupan joan ahal izango du Ibar Ezkerretik Zorrozurra. X

TEATRO ANTZOKIA  
**ARRIAGA** BILBAO  
J. A. Urbeltz y ballets

**Kondharrian**

ESTREINADIA

IRULEA ETA ITZARREN EZTEINA

dantza eta musika tradizionalak osaturiko ikusizuna, Koldo Amestoyk kontatzen dituen zazpi ikusizunetan oinarritua.

Hitza, ipuina, musika, dantza, oreka, milabar-jokoa, jantzien kolorea, moztarokak eta txontxangiloak dira Juan Antonio Urbeltzen ikuskizun honi bizia ematen dioten adierazpenak.

ARRIAGA ANTZOKIAN

Bihar  
Arratsaldeko 8etan  
**Ekainak 28**